# Gurutze Saindua

# 77. Salmoa

*L.a. 34 / S.a. 37*




**Gurutzearen bidez daukuzu eman bizia !**

Gure denboran aditu eta ikasiak,
Aitzinekoek guri kondatu zer guziak,
Heien semeri ez daiteke utz ixilean:
Ondokoeri nahi ditugu denak erran.

Jaunak hiltzean, hasten ziren bai haren bila,
Itzultzen ziren Jaunari deika, dei-ahala.
Orroitzen ziren heien harroka Jauna dela,
Zaintzalerik ez, Jaun zerukoa den bezala.

Agoan denek bazabilaten ele zuri,
Bainan gezurra beren mihiak erran hori.
Heien bihotza etzen harekin zuzen ari,
Etzauden barnez, etzauden zinez Jainkoari.

Halere Jauna berriz eztitzen zitzaioten:
Barkatzen zuen eta ez denak hilarazten.
Noizbait zen orroit zer den gizona: gorputz ahul,
Joaki den hats bat, bai joaki eta ezin itzul.

Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.

Tout droit propriété de l'abbaye de Belloc